




Zerbitzuak indar handiz hazi ziren apirilean

Zerbitzuen negozio zifra
Urte bakoitzeko apirila. Indizea




Iturria: INE.

Apirilean, zerbitzuen negozio zifra %18,8 hazi zen urte arteko tasan.

Tasa horren ondorioz, hilekoan lortutako maila datuak daudenetik apiril batean jaso den altuena izan zen. Bestalde, sektoreko enplegua, estatistika horren arabera, %2,4 handitu zen aurreko urtearen aldean.

Industriak bere jarduera areagotu zuen apirilean

Industriaren negozio zifra
Urte bakoitzeko apirila. Indizea




Iturria: INE.

Zerbitzuak bezala, **apirilean industriaren negozio zifrak ere gorakada handia eskuratu zuen aurreko urtearen aldean. Zehazki, urte arteko tasa %28,5 izan zen.** Horri esker, indizea azken hamabi urteetako apirileko beste edozein datuaren gainetik kokatu da.



Hoteletako gaualdiek gora egin zuten maiatzean

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko maiatza. Mila




Iturria: Eustat.

Maiatzean, EAEko hoteletan igarotako gaualdiak %168,6 handitu ziren aurreko urtearen aldean. Guztira, 563.000 gaualdi egin ziren hilabete horretan, eta bi milioi aurtengo lehen bost hilabeteetan. Nabarmentzekoa da atzerriko turismoaren itzulera, igarotako gau guztien ia erdia atzerritarrek egin baitzuten.

Industriaren prezioak are gehiago garestitu dira

EAEko industriaren prezioak
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Industriaren ondasunak gero eta gehiago garestitzen ari dira. **Maiatzean, IPRIaren urte arteko aldakuntza tasa %29,7ra iritsi zen, hainbat haimarkadatarako kopururik handiena baita.** Prezioen igoera bereziki garrantzitsua da produktu energetikoe-tan (%73,6) eta bitarteko ondasune-tan (%24,9).